

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko HAPOn egiturazko xedapen aldaketari, zein azpiegitura hidraulikoen eta telekomunikazio-azpiegituren kalifikazio xehekatuak definitzeari eta, aldi berean, Lasarteko Legar-hobien inguruan azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat mugatzeari dagokion

Hau erabaki zuen Udalbatzak 2021eko uztailaren 23an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko HAPOn egiturazko xedapen aldaketari, zein azpiegitura hidraulikoen eta telekomunikazio-azpiegituren kalifikazio xehekatuak definitzeari eta, aldi berean, Lasarteko Legar-hobien inguruan azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat mugatzeari dagokion.

Erabaki-proposamena

2017ko urriaren 16an, Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak Gasteizko HAPOn aldaketa bat egiteko eskatu zien udal zerbitzu teknikoei, azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat definitu eta lurzoru urbanizaezinean mugatzeko, Lasarteko legar-hobien inguruan.

2012ko urriaren 24an, Gasteizko Udalak eta URA Uraren Euskal Agentziak lankidetzarako esparru-akordioa sinatu zuten, Gasteizko udalerrian uholdeetatik babesteko obrak egiteko, eta aldaketa honen oinarri da udalak akordio horretan jasotako prebentzio-obrak gauzatzeko duen borondatea. Obra horiek Gasteizko udalerria Batan eta Zapardiel ibaietako uholdeetatik babesteko defentsa-proiektuan zehazten dira.

Proiektuak hartuko duen lurzoruak urbanizaezin sailkapena du egun, eta nekazaritza balio bereziko kalifikazioa. Beraz, proiektuaren eremua lurzoru urbanizaezineko azpiegitura hidraulikoen sistema orokor gisa birdefinitu behar da, sailkapena aldatu gabe; aldaketa honetan jaso da horren antolamendu xehatua.

Aldaketa honen bidez, azpiegitura orokorren barruan azpiegitura hidraulikoen kalifikazio xehatua zehazten da, eta kalifikazio hori duen sistema orokor bat mugatzen da, lurzoru urbanizaezinean, Gasteizko udalerrian Batan eta Zapardiel ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuaren baitan. Antolamendu xehatua egiten da, aurreikusitako desbideratzearen trazatuan doiketa bat eginez, hiri orubeetan izan dezakeen eragina minimizatzeko.

Halaber, kalifikazio orokor beraren baitan, telekomunikazio-azpiegituren kalifikazio xehatua definitzen da. Indarrean dagoen plan orokorreko 5.03.45 artikuluan araututako erabilera da, baina ez dago azpiegituren erabilera orokorretan jaso eta definitua. Beraz, zuzendu egiten da plan orokorrak barne koherentzia izan dezan.

Aldaketa honek Gasteizko udalerriri osoari eragiten dio eta egiturazkoa da, sistema orokorreari eragiten dielako, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.1 f) artikuluan xedatutakoaren jarraituz.

Udal-teknikariek egindako proiektuak Gasteizko HAPOn alderdi hauek aldatzen ditu:

a) Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak emandako txostenean jasotakoa betetze aldera, aldatu egin dira 4.05.65 artikuluko zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren puntuak, eta hamargarren puntu bat ere gehitu da, molde honetara ekarrita:

7. Telekomunikazio-azpiegiturak instalatuz gero (telefono-antenak eta mikrouhin-loturak, esaterako), horien altuera dela-eta, bermatu egin behar da ez dutela inolaz ere Gasteizko Aireportuaren zortasun aeronautikoei buruzko araudia urratuko. Gauza bera aplikatu behar da energia elektrikoa garraiatzeko lerroen, aerosorgailuen, eta funtzionamenduagatik plataforma jasoetan kokatu behar diren beste egitura guztien kasuetan ere.

8. Planeamenduko hirigintza-araudian bertan kontraesanik izanez gero –edo hirigintza-araudiaren eta planoen artean–, zortasun aeronautikoei ezarritako mugapen edo baldintzak nagusituko dira hirigintza-planeamenduan jasotako beste edozein xedapenen aldean.

9. 584/1972 Dekretuaren –egungo idazkuntza– 10. artikulua arabera, Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoen eremuaren lurzoruaren gaineko proiektio ortogonalaren barruko azalera jardueren mugapenaren zortasun bati lotuta geratzen da, zeinen arabera Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziak (AESAs) debekatu. mugatu edo baldintzatu egin ahal izango baititu haren barruan kokatzen diren jarduerak, aireko operazioetarako edo instalazio erradioelektrikoetarako arriskurik sor balezakete. Jarduera horiek ezarri edo bideratzea ahalbidetzen duten lurzoruaren erabileretara zabalduko da aukera hori, eta, besteak beste, hauek hartuko ditu:

a) Turbulentziak eragin ditzaketen oztopoen eraikuntza berekin dakarten jarduerak.

b) Arriskua sortu edo nahasmena eragin dezaketen argiak erabiltzea, laser proiektagailu edo emisoreak barne.

c) Azalera handiak eta oso islatzaileak –itsutzea eragin dezaketenak– erabiltzea eskatzen duten jarduerak.

d) Aerodromoaren mugimendu-zonaren inguruan faunaren jarduera bultzatzen dakarten jarduerak.

e) Erradiazio-iturri ikusezinak ezartzea edo funtzionatzea nahiz komunikazio, nabigazio edo zaintza aeronautikoen funtzionamenduan interferentziarik eragin edo kalte egin liezaieketen objektu finko edo mugikorren presentzia dakarten jarduerak.

f) Kea, lainoa edo aireontzientzat arriskutsua gerta litekeen beste edozein fenomeno sortzen duten instalazioak ezarri edo funtzionatzea errazten edo berekin daramaten jarduerak.

g) Kirol jardueretarako edo bestelakoetarako aireko propulzio- edo sostengu-bitartekoak erabiltzea.

10. Instalazio erradioelektriko aeronautikoen funtzionamendu normala nahasteko moduko erradiazio elektromagnetikoak sor litzakeen edozein emisore erradioelektrikok edo bestelako gailuk, nahiz eta ez urratu oztopoak mugatzen dituzten azalera, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren baimena behar du, Zortasun aeronautikoei buruzko 584/1972 Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Zortasun aeronautikoak –funtzio soziala dela eta– jabetza-eskubidearen mugapen legalak direnez, jada ondare bihurtutako eskubideei eragiten badiete bakarrik sortu ahal izango dute kalte-ordaina jasotzeko eskubideren bat horretarako ematen diren ebazpenek”.

Horretaz gain, HAPOn erantsi dira Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak zortasun aeronautikoei buruz emandako planoak.

a) 5.02.04 artikulua zazpigarren paragrafoan, azpiegituren erabilera globalaren atalean, telekomunikazio-azpiegituren eta azpiegitura hidraulikoen erabilera xehatuak sartzen dira.

5.03.42 artikuluan jasotako erabilera xehatuen sailkapenak eta definizioak erabilera xehatu hauek hartzen ditu baitan:**1. Oinarrizko energia-azpiegiturak.**

Erabilera honi dagozkio energia (elektrikoa, gasa) ekoizteko, biltzeko edo banatzeko instalazioak, sareak, zentroak eta abar.

Erabilera honetan sartzen dira, besteak beste, azpiestazio elektrikoak, transformazio-zentroak, goi-tentsio eta erdi mailako tentsioko sareak, gasbideak, gas-deposituak, eta abar.

2. Telekomunikazio-azpiegiturak.

Erabilera xehatu honen barnean sartzen dira telekomunikazio-instalazio, -sare eta -antena.

3. Azpiegitura hidraulikoak

Uholdeetatik babesteko instalazio, sare eta biltegiak, bai eta ura hornitzeko eta araztekoak ere.

Erabilera honetan sartzen dira, adibidez, uholdeen aurkako laminazio-putzuak, ekaitzetarako biltegiak, ur-biltegiak, ur-banatzailak eta -kolektore handiak, etab.

Beraz, aldaketaren helburu nagusiak dira azpiegitura hidraulikoko kalifikazio xehatua definitzea azpiegituren kalifikazio orokorren barruan, eta kalifikazio hori duen sistema orokorra mugatzea lurzoru urbanizaezinean. Aldaketak 60.000 metro koadrotik gorako lurzoru-azalerari eragiten dio. Gainera, azpiegitura hidraulikoen erabilera xehatua definitze aldera, 5.03.04 artikuluan erabilera xehatu hori gehitu zaie azpiegituren erabilera globalekoei, eta aldatu egin da erabilera xehatuen deskribapena 5.03.42 artikuluan, bere baitan har ditzan, argi eta garbi, azpiegitura hidraulikoak.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa honen proiektuan alderdi hauek jaso dira: idazketa-taldea, proposamenaren deskribapena, aldaketaren justifikazioa eta beharra, sektore-eraginak, aldaketaren izaera eta eremua, bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlana, herritarren partaidetzarako programaren emaitza (herritarrek ez zuten ekarpenik egin) eta Plangintzarako Aholku Kontseiluaren aldeko txostena.

Behin-behineko onespeneko hirigintza-dokumentua aldatu egin da, baina aldaketa horiek ez dira funtsezkotzat jo eta ez dute proposatutako antolamenduko alderdirik aldatzen. Aldaketa hauek egin dira hirigintza-dokumentuaren behin betiko bertsioan:

– Eguneratu egin da dokumentazio teknikoa izapidetzeari eta ingurumen organoaren, lhoberen, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eta Ikuskatzaile Nagusiaren txostenaren aipamenei dagokionez. Azken txosten hau desjabetze-prozesua abiarazteko ezarritako aurrekontu-kredituari egoteari buruzkoa da.

– II. eranskinean jaso da eragindako jabetzari dagokion informazioa.

– Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren atala (lehen, Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa) eguneratu da tramitazioari dagokionez.

– Bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoari dagokionez, justifikatu egiten da uholdeak izateko arrisku esanguratsua duten eremuak (Vitoria Sur) babesteko defentsa-proiektuko esku hartzeen errentagarritasun ekonomiko bateratua (Ebroko demarkazio hidrografikoko PGRIIn jaso). Egun, jendaurreko erakustaldian dago.

– III. eranskin gisa jaso da ingurumen-adierazpen estrategikotik eta nekazaritzako sektore-ebaluazioko protokoloaren txostenetik eratorritako ingurumen-alderdien integrazioaren justifikazioa.

Tramitazio hau izan du dosierrak:

– 2017ko urriaren 16an, Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren zinegotzi ordezkariak aldaketa hau idazteko eta herritarren partaidetzarako programa onesteko eskatu zien udal zerbitzuei.

- 2018ko abuztuaren 7an, zortasun aeronautikoen inguruko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zen.
- 2019ko uztailaren 26an, ingurumen-organoak aldaketaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenaren agiria onetsi zuen.
- 2020ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen aipatutako aldaketa horren proiektua eta proiektuaren zati den ingurumen-azterketa estrategikoa.
- 2020ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udalbatzak hasierako onespina eman zion aldaketari, eta 2020ko maiatzaren 22ko ALHAOn (57. zk.) eta 2020ko maiatzaren 6ko El Correo egunkarian (Arabako edizioa) zein Diario de Noticias de Álava egunkarian argitaratu zen, eta horren berri eman zitzairen ingurumen organoak aurrerapen-dokumentua idazteko kontsulatu zituen erakunde eta entitateei.
- 2020ko maiatzaren 26an, aldaketaren aldeko txostena egin zuen URA-Uraren Euskal Agentziak.
- 2020ko maiatzaren 27an, aldaketaren aldeko txostena egin zuen Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak.
- IHOBE, Ingurumen Jardueretarako Sozietate Publikoak 2020ko ekainaren 2an egindako txostenean adierazi zuenez, aldatu nahi diren lurzatieta jarduera kutsagarriak izan dira historian zehar eta, horrenbestez, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko eskatu da ukitutako eremu horretan edozein esku hartze egin aurretik.
- 2020ko uztailaren 8an, aldaketa jendaurrean azaltzeko saio irekia egin zen, herritarren partaidetzarako programaren barruan, eta ez zen inor bertaratu. Egun berean, proposamenaren alde agertu zen Plangintzarako Aholku Batzordea .
- 2020ko uztailaren 14an, Euskal Kultur Ondarearen Zentroaren txostena jaso zen, eta bertan gomendatu zuen ikuskapen arkeologikoa egitea Maite Zuñiga kaletik hurbilen dagoen kolektorea eraikitzeko lurra iraultzeko, hortik hurbil dagoelako Mendizabaleko herria 9. presuntzio arkeologikoko eremua.
- 2020 irailaren 25eko ohiko bilkuran, Gasteizko udalbatzak behin-behineko onespina eman zion aldaketari.
- 2020ko urriaren 21ean, txostena eskatu zitzaion Lurralde Antolamenduko Batzordeari, lurralde-antolamenduko tresnekin zein estatuaren, autonomia-erkidegoaren eta foru aldundiaren eskumenekoak diren sektore alderdiekin bat datorren adierazteko. Urte bereko abenduaren 17an egin zen aipatutako txostena URAREN eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaritzaren aldeko txostenekin batera. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak nekazaritza-arloan eskumena duen foru -organoaren txostena izatea eskatu zion udalari.
- 2020ko abenduaren 4an, Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatu zitzaion ingurumen-organoari. 2021eko urtarrilaren 13an egin zen, eta 2021eko otsailaren 25eko EHAA n argitaratu.
- 2021eko urtarrilaren 12an, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari eskatu zitzaion txostena, eta urte bereko otsailaren 24an jaso zen.
- Nekazaritza Sailak aldaketaren aldeko txostena egin zuen, aldaketa honek dakarren eragina bateragarritzat jo izanagatik, baina neurri osagarriak sartzea gomendatu zuen, eta hirigintza-dokumentuan justifikatu dira horiek.
- Aldaketak egun urbanizaezin sailkapena duten lurzoruei eragiten dienez, egokitzat jo zen Arabako Foru Aldundiari kontsulta bat egitea, 2021eko martxoaren 18an, jakiteko interes publikoko adierazpena eskatu beharra zegoen ala ez. 2021eko apirilaren 6an, aldaketa onartzeko ez zela interes publikoko adierazpenik behar jakinarazi zuen Foru aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak.

– Udalak 2021eko apirilaren 12an egindako kontsultari erantzunez, ingurumen-organoak, 2021eko maiatzaren 10ean, ahalmena eman zion udal administrazioari aldaketa behin betiko onesteko lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenik izan gabe, baldin eta adierazpen hori aurreikusitako erabilera gauzatu aurretik egiten bazen.

– 2021eko ekainaren 23an, aldaketa honek dakarren desjabetze-prozesua abiarazteko aurrekontu-kreditu nahikoa badela jakinarazi zuen Kontu-hartzaile Nagusiak.

Aplikatzekoak diren legezko arauetara dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formalizatzeko gutxienerako agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onesteko arauak ezartzen dira.

46/2020 Dekretuaren 29. artikulua eta 2/2006 Legearen 91.1 artikulua ezartzen duten bezala, zazpi mila biztanletik gorako udalerrietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena ikusita, aldaketa behin-behinean onartu zuen organoak behin betiko onartu ahal izango du.

Interes Orokorreko Aireportuen eta haien Zerbitzu Eremuaren Antolamenduari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Sustapen Ministerioaren txostena nahitaezkoa eta loteslea da Estatuaren eskumen esklusiboei dagokionez, bereziki aireportu-zerbitzugunea sistema orokor gisa kalifikatzeari eta aireportu-zerbitzuen edo zerbitzu akustikoen eraginpeko guneei esleitu nahi zaizkien eragin-motari eta erabilerei dagokienez.

Indarrean dagoen Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5. a) artikulua hau xedatzen du: lurzoru urbanizaezinean honako hauek daude baimenduta: Ondoren zehazten diren zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzea beste helbururik ez duten jarduketak: alde batetik, arlo jakin bateko legeriak –aplikatzekoa denak– edo lurraldearen plangintzak interes publikokotzat jo dituenak, eta bestetik, kasu jakinetan, dagokion foru-aldundiak interes publikokotzat jo dituenak; bigarren hori, 20 egunez jendaurrean edukitzeko tramitea bete ondoren, ebazpen baten bidez egingo du.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1 artikulua eta I. eranskineko 7. atalak, eta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 46. artikulua xedatzen dutenez, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar da, lurzoru urbanizaezinean garatzekoa delako, eta proiektuak 100.000 m³-tik gorako edukiera duen azpiegitura hidraulikoaren proiektua delako.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 2015eko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.4 artikulua xedatutakoarekin bat, behin betiko onetsi aurretik lurzoruari buruzko adierazpena egin behar du Ingurumen organoak, aldaketaren eremua lurzoru kutsa dezaketen instalazio edo jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta dagoelako. Behin betiko onespenera eman aurretik lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketarik egiterik ez bada, hirigintzako jarduketa-programari hasierako onespenera eman aurretik egin behar da, edo, halakorik ez bada, eremua birpartzelatzeko eta urbanizatzeko proiektuen hasierako onespeneraren aurretik.

Udalbatzaren eskumena da Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketari behin betiko onespenera ematea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 123.1.i) artikulua (Tokiko Gobernua berritzeko neurriari buruzko 57/2003 Legeak gehitua) dioenaren arabera.

Proposatzen den Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketarekin bat etorritik, dossierrean jasotako hirigintza-agirietan horren beharra eta egokiera justifikatzen delarik, ikusirik aipatutako aginduak nahiz aplikatu beharreko beste guztiak, eta aipatutako legearen 122.4.a) artikuluan aitortzen zaizkion eskumenak baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau har dezala proposatzen dio Gasteizko Udaleko Udalbatzari:

Erabakia

Lehena. Behin betiko onespena ematea Gasteizko HAPOren egiturazko xedapen aldaketari, zeinek azpiegitura hidraulikoen eta telekomunikazio azpiegituren kalifikazio xehatuak definituko baitu eta, aldi berean, azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat mugatuko baitu Lasarteko legar-hobien inguruan.

Hirigintzako jarduketa-programari hasierako onespena eman aurretik, edo kokaleku-eremua birpartzelatzeko eta urbanizatzeko proiektuei hasierako onespena eman aurretik, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egin behar da. Ingurumen Administrazio Batzordearen 2021eko urtarrilaren 19ko ebazpenen bitartez formulatu zen HAPOean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketaren ingurumen-informazio estrategikoa, eta, ebazpen horri jarraiki, bete egin beharko dira ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpenari buruzko nahitaezko ebazpenean ezarritako mugak, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.4 artikuluaekin bat.

Bigarrena. Erabaki hau eta aipatutako aldaketaren hirigintza-arauak ALHAOean argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Hirugarrena. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritik.

Ingurumen-txosten estrategikoa 2021eko otsailaren 25eko EHAAan argitaratu zen, 41. zenbakian. Dosierreko dokumentazio teknikoa esteka honetan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/hapoa-lasartekolegarhobiak.

Aldatutako araudia

4.05.65. artikulua. Zortasun aeronautikoen arloko xedapenak

Dokumentu honen VI. liburukiko —Dokumentazio grafikoa— 8.2 planoetan, Gasteizko udalerriri eragiten dioten Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen altuera eta kotak mugatzen dituzten azalaren maila-lerroak irudikatzen dira. Plano horietan, bilbatze baten bitartez irudikatzen dira zortasun horiek lurzoruak berak urratzen dituen zonak, aire-nabigaziorako instalazio erradioelektrikoen segurtasun-eremuen barruan dauden lursailak eta ILS maniobrari dagokion hurbiltze frustratuko eremuaren barruan dauden zonak.

Esparru horietan eraikuntza edo instalazio berririk planteatuz gero, zortasun aeronautikoen arloko araudia betetzen dela ziurtatzeko aukera emango duten xedapen hauek bete beharko dira:

1. Eraikuntza eta instalazioek ezingo dituzte urratu Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoak, zortasun aeronautikoen 8.2 planoetan irudikatuta ageri direnak, salbu eta egiaztatuta geratzen delarik, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren (AESA) iritziz, ez dela segurtasuna konprometitzen, eta ez zaiola modu esanguratsuan eragiten aireontzien operazioen erregularitasunari, 584/1972 Dekretuaren egungo idazkuntzan jasota dauden salbuespenen arabera; ezta Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren babespean aurreikusten den beste edozein jarduerak —elementu guztiak barne harturik, hala nola antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire egokituko ekipoak, igogailu-kutzak, kartelak edo erremate apaingarriak—, eraikuntza horien gaineko beste inongo elementu erantsiren moldaketek, horiek eraikitze beharrezko den edozein bitarteko mekanikok (garabiak eta abar), lurzoruaren edo objektu finkoen aldakuntzek —postea, antenak, airesorgailuak (palak, kartelak eta abar barne)— edo bideko edo trenbideko galiboak ere.

2. Lehendik dauden eraikuntza, instalazio eta eraikinei dagokienez, zortasun aeronautikoak lurzoruak berak urratzen dituen zonetan nahiz zortasun aeronautikoak urratzeko arriskua dagoen zonetan ez da onartuko altuera-igoera ekarriko lukeen elementu edo aldakuntzarik.

3. Baldin eta zortasun aeronautikoez ezarritako mugapen eta betebeharrak ez badute aukerarik ematen aurreikusitako eraikuntza edo instalazioak egiteko, ez da kalte-ordaina jasotzeko inongo eskubiderik sortuko, eta ez dute halakorik eman beharko ez Sustapen Ministerioak, ez aireportuaren kudeatzaileak, ez aire-nabigazioko zerbitzuak eskaintzen dituenak, salbu eta jada ondare bihurtutako eskubideei eragiten badiete.

4. Zortasun aeronautikoez eragindako zona eta espazioetan edozein eraikuntza edo instalazio egitekotan —postea, antenak, airesorgailuak (palak barne), eraikuntzarako beharrezko diren bitartekoak (eraikuntza-garabiak eta antzekoak barne)—, edo edozein landaketa, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren (AESA) alde aurreko aldeko erabakia beharko da, 584/1972 Dekretuaren —egungo idazkuntza— 30 eta 31. artikuluen ildotik.

5. Aire-nabigaziorako instalazio erradioelektrikoen segurtasun-eremuetan eraikuntza oro eta lurzoruaren konstituzioaren, azaleraren edo haren gainean dauden elementuen aldakuntza tenporal nahiz iraunkor oro debekatzen da, alde aurretik Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren (AESA) baimena eduki ezean, 584/1972 Dekretuaren —egungo idazkuntza— 15. artikuluko b) atalaren ildotik.

6. ILS maniobrari dagokion hurbiltze frustratuko eremuan eraikuntza oro eta lurzoruaren konstituzioaren, azaleraren edo haren gainean dauden elementuen aldakuntza tenporal nahiz iraunkor oro debekatzen da, alde aurretik Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren (AESA) baimena eduki ezean.

7. Telekomunikazio-azpiegiturarik instalatzekotan, hala nola telefono-antenak eta mikrouhin-loturak, Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoei buruzko araudia ez dutela urratzen bermatu beharko da, altuera handia izan ohi dutenez gero. Gauza bera aplikatu behar da energia elektrikoa garraiatzeko lerroen, aerosorgailuen, eta funtzionamenduagatik plataforma jasotetan kokatu behar diren beste egitura guztien kasuetan ere.

8. Planeamenduko hirigintza-araudian bertan kontraesanik izanez gero, edo hirigintza-araudiaren eta planoen artean, zortasun aeronautikoez ezarritako mugapen edo baldintzak nagusituko dira hirigintza-planeamenduan jasotako beste edozein xedapenen aldean.

9. 584/1972 Dekretuaren —egungo idazkuntza— 10. artikulua arabera, Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoen eremuaren lurzoruaren gaineko proiektzio ortogonalaren barruko azalera jardueren mugapenaren zortasun bati lotuta geratzen da, zeinen arabera Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziak (AESA) debekatu. mugatu edo baldintzatu egin ahal izango baititu haren barruan kokatzen diren jarduerak, aireko operazioetarako edo instalazio erradioelektrikoetarako arriskurik sor balezakete. Jarduera horiek ezarri edo bideratzea ahalbidetzen duten lurzoruaren erabileretara zabalduko da aukera hori, eta, besteak beste, hauek hartuko ditu:

a) Turbulentziak eragin ditzaketen oztopoen eraikuntza berekin dakarten jarduerak.

b) Arriskua sortu edo nahasmena eragin dezaketen argiak erabiltzea, laser proiektagailu edo emisoreak barne.

c) Azalera handiak eta oso islatzaileak —itsutzea eragin dezaketenak— erabiltzea eskatzen duten jarduerak.

d) Aerodromoaren mugimendu-zonaren inguruan faunaren jarduera bultzatzen lezaketzen jarduerak.

e) Erradiazio-iturri ikusezinak ezartzea edo funtzionatzea nahiz komunikazio, nabigazio edo zaintza aeronautikoen funtzionamenduan interferentziarik eragin edo kalte egin liezaieketen objektu finko edo mugikorren presentzia dakarten jarduerak.

f) Kea, lainoa edo aireontzientzat arriskutsua gerta litekeen beste edozein fenomeno sortzen duten instalazioak ezarri edo funtzionatzea errazten edo berekin daramaten jarduerak.

g) Kirol jardueretarako edo bestelakoetarako aireko propulsiio- edo sostengu-bitartekoak erabiltzea.

10. Instalazio erradioelektriko aeronautikoen funtzionamendu normala nahasteko moduko erradiazio elektromagnetikoak sor litzakeen edozein emisore erradioelektrikok edo bestelako

gailuk, nahiz eta ez urratu oztopoak mugatzen dituzten azalerak, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren baimena beharko du, Zortasun aeronautikoei buruzko 584/1972 Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Zortasun aeronautikoak – funtzio soziala dela eta – jabetza-eskubidearen mugapen legalak direnez, jada ondare bihurtutako eskubideei eragiten badiete bakarrik sortu ahal izango dute kalte-ordaina jasotzeko eskubideren bat horretarako ematen diren ebazpenek.

2. atala. Erabileren erregimen orokorra.

1. idatz-zatia. Erabileren arauketa.

5.02.04. artikulua.- Erabilera globalen eta xehatuen definizioa

Erabilerei buruzko araudi hau ondorengo erabilera globalen eta horiei dagozkien erabilera xehatuen arabera egituratzen da:

ERABILERA GLOBALAK	ERABILERA XEHATUAK
1 Bizitegia	familia bakarreko etxebizitza bi familiako etxebizitza etxebizitza kolektiboa
2 Ekoizpena	industria biltegi eta lantegiak nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak
3 Tertiarioa	bulego eta bankuak dendak eta azokak hotelak eta egoitza komunitarioak establezimendu publikoak
4 Ekipamenduak	kirola hezkuntza osasuna asistentzia kultura ikuskizunak erlijioa administrazioa eta hiri-zerbitzu txikiak defentsa zuzkidura-alojamenduak generikoa
5 Hiri-zerbitzuak	hiri-zerbitzu orokorrak hilerriak beilatokiak
6 Espazio libreak	hiri-parkeak berdegune publikoak berdegune pribatuak sailkatua/eremua erabilera pribatuko gunere librea
7 Azpiegiturak	oinarizko energia-azpiegiturak telekomunikazio-azpiegiturak azpiegitura hidraulikoak
8 Errepideak	hiri arteko errepideak hiriko errepideak bidezidor eta bideak ibilbide ekologikoak
9 Garraioak	trenbide-sarea tranbia-sarea geltokiak aireportua
10 Aparkalekuak	aparkaleku publikoak aparkaleku pribatuak

7. atala. Azpiegituren erabilera.

1. idatz-zatia. Definizioa eta barne hartutako erabilera xehatuak.

5.03.41. artikulua.- Erabilera globalaren definizioa

Izaera kolektiboko hiri-azpiegiturak hartzeko diren espazioei dagokiena da erabilera globala.

5.03.42. artikulua.- Erabilera xehatuen sailkapena eta definizioa

Ondorengo erabilera xehatuak sartzen dira:

1. Oinarrizko energia-azpiegiturak.

Erabilera xehatu honek barne hartzen ditu energiaren —argi-indarra, gasa— instalazioak, sareak, produkzio-zentroak, biltegitratzea, banaketa-zentroak eta abar.

Erabilera honetan sartzen dira, adibidez, azpiestazio elektrikoak, transformazio-zentroak, goi-tentsio eta erdi-mailako tentsioko sareak, gasbideak, gas-deposituak eta abar.

2. Telekomunikazio-azpiegiturak.

Erabilera xehatu honek barne hartzen ditu telekomunikazio-instalazio, -sare eta -antena.

3. Azpiegitura hidraulikoak.

Erabilera xehatu honek barne hartzen ditu uholdeetatik babesteko instalazio, sare eta biltegiak, baita ura hornitu edo araztekoak ere.

Erabilera horretan sartzen dira, adibidez, uholdeen kontrako laminazio-putzuak, ekaitzetarako biltegiak, ur-biltegiak, ur-banatzaile eta -kolektore handiak eta abar.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 28an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE